


AIARALDEA *hemen*

AIARALDEA EKINTZEN

FAKTORIA

irekitzera goaz!

Maiatzak 15



F

750 METRO KARRATU · ANARI · IDEIEN LABORATEGIAK · RUPER ORDORIKA · EKONOMATUA · KAI NAKAI · POESIA ZAURIEN UKENDU · IDEIEN LABORATEGIAK · HABI ETA ETXEKALDE · UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA · KANTINA · PORROTX ETA YOOGURINHA BOROVA · ENTSEGUAK · HEZKUNTZA CHILL-MAFIA · KULTURA · EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA · MALEN ATXA · SORKUNTZA BEKAK ESTI ETA MIKEL MARKEZ · BULEGO · JOLASAK · KONPOST · TERRAZA · BAZKIDEAK · ERA BATERA EÑAUT ELORRIETA · FEMINISMOA · ELKAR EZAGUTU GENUEN EGUNA · KONSPIRAZIOAK · ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK · IBIL BEDI · ELIKADURA · MARIA RIVERO & TRIBU BANDA · AIARALDEA KOMUNIKABIDEA · JOLAS-PARKEA · TAILERRAK · GEOTERMIA · MAHAI-INGURUAK · UDALEKUAK ENERGIA BERRIZTAGARRIAK · ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK · SOLASALDIAK · OLATUKOOP IKUS-ENTZUNEZKO ESTUDIOA · PLAZA IREKIA · SUKALDEA · COWORKING GUNEA · GOIKO PLAZA...

AMESTEKO FAKTORIA, 750 METRO² BIZITZEKO

Iristear dago eguna. Maiatzaren 15ean irekiko ditu ateak Faktoriak, Laudioko Errotari kaleko 4-8 pabilioian. Egun esanguratsua izango da, Aiaraldea Ekintzen Faktoriak hainbat urte baitaramatza proiektua diseinatu eta mamitzen.

11 urte bete dira hainbat herritar bidea urratzen hasi zirenetik, Aiaraldean euskaratik eta euskaraz egituratu zen komunitate bat eratzea helburu. Bide horretan, Aiaraldea Hedabidea sortzea izan zen lehen pausoa, baina lehen urrats horrek beste batzuk ekarri zituen atzetik: Kokoriko Hezkuntza Faktoriaren sorrera, Ekonomatuaren irekiera edota Feminismoaren ildoaren aktibazioa, besteak beste.

Duela bost urte eginiko go-goeta estrategikoan marraztu zuten ortzimuga: Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren ildo guztiak barnebildu eta hauspotuko zituen espazio bat ireki behar zen, euskararen Aiaraldeko etxea izango zena.

Arkitektura proiektua

Esan eta egin. Laudioko industrialdean kokatutako pabilioia erosi zuten, dozenaka bazkideren borondatezko kapital ekarpenei esker. Behark arkitektura estudioko Beñat Saratxaga eta Gentzane Goikuriak diseinatu zuten proiektua, euskararen komunitatea ahaldundu eta handitzeko egoitza erakargarri, moderno, atsegin, eroso eta erabilera anitzekoa proiektatuta.

“Matrioska estrategia” baliatu zuten proiektua osatzeko, pabilioiaren barruan “herri” formatuko espazio bat atonduta, eraikin, plaza, kale eta berdegune propioak dituen herria. “Geometria sinpleko moduluak” baliatu zituzten horretarako, behar den espaziora moldatzen direnak.

Baina egurrezko etxola ho-

riek eraiki baino lehen beste hainbat lan burutu behar izan ziren. Hondeamakinak sartu ziren pabilioian, lurra zulatu eta berogailu sistema geotermikoa ezartzeko.

Luzea eta gogorra izan da bidea. Oztopo ekonomikoek bestelako trabak batu zaizkie. Pandemiaren erdian hasi ziren pabilioiko etxolak forma hartzen, eta urtebete baino gehiago iraun dute obrek. Baina eginiko ahaleginaren fruituak ikusgai daude dagoeneko: pabilioi huts bat zena egurrezko hainbat estruktura eta etxolez osatutako “herrixka” bilakatu da.

Lehen jarduerak

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak ez du obrak amaitu arte itxaron pabilioia bizi eta ametez betetzen hasteko. Aiaraldeko I. Azoka Soziala egin zen bertan 2018. urtean.



Apirilko azken asteburuan egin zen Faktoriaren aurreinagurazioa. Ehunka bazkide bertaratu ziren proiektua gertutik ezagutzeko. **Iban Pagalday**

Bazkideen ekarpenarekin pabilioia erosi, erreformatu eta auzolanean bukatu dute

Egun bakar batean, hainbat proiektu eta tokiko ekoizlearen erakusleho bihurtu zen pabilioia.

Ondoren etorri ziren Aiaraldeko Emakumeen* Topaketa Feministak, Kokoriko Hezkuntza Faktoriaren Udalekuak edota Arrastiak Faktorian kultur emanaldi zikloak. Faktoriaren egitasmoa jendarteratzea zen ekimen horien helburu nagusia, pabilioian etorkizunean egin zitezkeen ekintzak antolatzen hasiz.

Auzolanean eraikia

Auzolanak pisu handia izan du Faktoriaren eraikitze fase

guztian zehar. Dozenaka bolutario animatu dira bernizatu, margotu, alikatatu, iturgintzan aritu edo garbiketa lanak egitera. Jende guzti horren ekarpena gabe Faktoria ez litzateke datorren maiatzaren 15ean irekiko.

750 metro karratu

Apirilko azken asteburuan egin zen Faktoriaren aurreinagurazioa, bazkideei bideratutakoa. Ehunka lagun bertaratu ziren azpiegituraren nondik norakoak gertutik ezagutu eta Anariren kontzertuaz gozatzera.

Izan ere, Faktoria ez da bulego-gune huts bat izango.

750 metro karratu ditu pabilioiak, eta “bizi eta amestera” bideratu nahi dute espazio guzti hori.

Atetik sartzean, Ekonomatuaren denda eta oholtza dira bisitariak topatuko dituen lehen bi gauzak. Ezkerrean, aldiz, egurrezko hiru etxola txiki ikusiko ditu. Kokoriko Hezkuntza Faktoriaren jolasgunea egongo da bertan kokatuta.

Ekonomatuaren atzean dago Kantina, sukaldea eta tabernak osatzen dutenak. Barra zerbitzua eskaintzeaz gain, tokiko produktu ekologikoekin prestatutako mokadu eta otorduez gozatzeko

beta egongo da bertan. Era berean, bazkideek azpiegitura erabiltzeko aukera izango dute, txoko moduan.

Kantinaren parean dago barruko aretoa. Hitzaldiak, bilerak eta formatu txikiago-ko bestelako egitasmoak egiteko azpiegitura izango da. Aiaraldea Hedabideko ikus-entzunezkoen epizentroa ere izango da, kontrol gune bat baitu, kamaren bidez emaldiak zuzenean grabatu eta emititzeko aukera eman-
go duena.

Eskailerak igota edo igogailua hartuta iritsi daiteke bisitaria goiko plazara. Bertan daude Aiaraldea Ekintzen Faktoriako ildo guztien bulegoak, batzar gela irekia, eta cooworking gunea ere. Komunek, kamerinoek, hotz kamarek, barne-lorategiek eta bestelako espazio osagarriak osatzen dute amesteko faktoria.



Anarik jo zuen Faktoriaren aurreinagurazioan. Iban Pagalday

FAKTORIA ARNASGUNE BAT DA:

- Euskararentzat
- Emakumeentzat*
- Haurrentzat
- Migratzaileentzat
- Baztertuentzat
- Gazteentzat
- Aniztasun funtzionala dutenentzat
- Sexu-identitate disidenteentzat

Errespetatu, zaindu
eta elikatu
espazio seguru hau.

ARNAS GUNEA

“Faktoria arnasgune bat da euskararentzat, emakumeentzat*, haurrentzat, migratzaileentzat...”. Lelo hori topatuko du Faktoriara gerturatzen den bisitariak ataurrean. Faktoria, balio eta proiektu eraldatzaileak euskaraz eskualde osoan sustatzeko lan-tegi bat izateko bokazioarekin jaio baita.

Espazio seguru bat euskararentzat, kalean ohikoan bizi den erdal kutsadurarekiko arnasgune bat izan nahi du Faktoriak, eta ez da erronka makala, ez. Bertara sartzen diren herritarrek jakin behar dute, euskaraz bizitzeko espazio bat dela hau, eta zentzu horretan irizpide zorrotzak baina enpatikoak baliatuko ditu Aiaraldea Ekintzen Faktoriak euskararen biziberritzerako tresna eraginkor bat izan dadin. Seinalitika eta lan hizkuntza bakarra euskara izango da bertan, izan kultur-jardueretan, hitzaldietan, ekonomatuan, kantuan zein bestelako jardueretan ere, kalean ez bezala, euskaradunen hizkuntz-eskubideak gailenduko dira bertan, konplexurik gabe bizi ahal izateko euskaraduna, ahaldunduz eta boteretuz.

Baina, era berean, bisitariari eskatuko zaio arnasgune horrekiko errespetua izatea, konpromiso bat hartzea atea zeharkatzean, euskararekiko dituen hizkuntz-gaitasun guztiak erabiltzekoa: hitz egiteko gai direnei, soilik euskaraz aritzea eskatuz, ulertzen dutenei bertan jazotzen diren elkarrizketak erdalduntzea sahiesteko eskatuz... eta nola ez, euskaltzale ez direnei (hizkuntza ezagutu edo ez), espazio hori eta bere helburuak errespetatu eta kanpoan geratzeko esanez. Erdararen oinetakoak kanpoan utzita sartzeko eskatuko zaio; izan haur, nerabe, gazte, heldu zein adineko.

Euskaltegi eta berbalagun-espazio erraldoi eta dinamiko bat izan nahi du Faktoriak; euskaraz ikasteko aukerarik izan ez duten adinekoak euskalduntzen lagunduko dituen, oinarrizko elkarrizketak, hiztegiak, eta behar afektiboak gure hizkuntzan garatzeko baliabideak eskainiko dizkiena. Era berean, pertsona migratzaileak euskararen unibertsoa batzeko lanabesa izan nahi du, bai eta euskalduntzen ari diren lagun guzti horien aterpe eta babesleku ere.

Espazio seguru bat euskararentzat, bai eta **emakumeentzat*** ere. Indarkeria matxistarik gabeko espazioa izango da Faktoria, emakumeak* uneoro libre eta seguru sentiaraziko dituen. Edozelango jarrera matxista, erasokor edo mingarri momentuan bertan galeraziko da, zorrotz. Emakumeak* aske sentitzeko espazioa izateaz gainera, Faktoria gune feminista bat izango da, emakumeak elkartu, ahaldundu eta boteretzeko lantegia. Norabide horretan soilik emakumeentzat* antolatuko dira hainbat ekitaldi eta jarduera, ahizpen artean konplizitatea josten jarraitu eta Aiaraldea feminista ehuntzen jarraitzeko.

Espazio segurua izango da **haurrentzat** ere, euren garapena, protagonismoa eta askatasuna elikatuko duena. **Migratzaileentzat**, arraza, jatorri, zein kulturekiko errespetua eta aitortza praktikatu duena. **Baztertuentzat, gazteentzat, identitate sexual disidenteentzat, aniztasun funtzionala dutenentzat...**

Bestelako jendarte eredu bat euskaratik eta euskaraz sustatzeko eta praktikan jartzeko erronka erraldoia ezarri dio bere buruari Faktoriak, eta ataurrean adierazten den bezala bertaratzen den guztiaren laguntza beharko du xede horretan; **“errespetatu, zaindu eta elikatu dezagun espazio seguru hau”**.

Zer da

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA

?

Zer da Aiaraldea Ekintzen Faktoria? "Aiaraldea" hitza entzutean jende askori Aiaraldea Komunikabidea datorkio zuzenean burura: duela 11 urte sortu zen eta euskara hutsez ari den tokiko komunikabidea. Baina proiektu osoaren adar bat baino ez da hori. Azken hamarkadan beste hainbat ildo loratu dira proiektu honen atzerapean, denak entitate sozial beraren baitan, eta helburu berarekin: Aiaraldea euskaratik eta euskaraz eraldatzea.

Euskara

AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA

Euskara izan da eta izango da proiektu osoaren ardatza, euskaratik eta euskaraz sortu baita Faktoria.

Baina, euskararentzako arnagune izatetik harago, gure hizkuntzaren normalizaziora bidean Aiaraldea osoan eragiten jarraituko du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak. 2016an Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren sorreran eragile garrantzitsua izan zen, beste 40 eragilerekin batera. Beste hainbat urrats eman nahi ditu aurrerantzean ere, Faktoria lanabes izanda.

Kultura sorkuntza

Euskarazko kultur sorkuntza sustatzeko lanabes garrantzitsua izango da Faktoria. Oholtza, ikus-entzunezkoen grabaketarako espazioa, entseguak, sormen-laborategiak zein egonaldiak antolatzeaz azpiegiturak... Tokiko sorkuntzaren zerbitzura jarriko ditu Faktoriak baliabide hauek guztiak, kultur gile ezberdinen arteko sinergiak eta harremanak sustatuz.

Horretaz gainera, kultur programazio oparoa osatu du Faktoriak datozen hilabeteetarako, eta horretan sakontzea du helburu, bestelako kultur-guneekin elkarlanean beti ere. Euskarazko sorkuntza sustatu eta indartzea izango da Faktoriaren erronka nagusia.


Hezkuntza KOKORIKO

Askotan esaten da mundua aldatzeko, mundua aldatuko duten pertsonak hezi behar direla, mamia hezkuntzan dagoela, alegia. Horretarako sortu zen 2019an Kokoriko Hezkuntza Faktoria. Hezkuntza eta aisialdi eraldatzailea sustatzen du Kokorikok, udalekuak, tailerrak, jardunaldiak, unitate didaktikoak zein haur, nerabe, gazte zein gurasoei zuzendutako bestelako ekimenen bidez. Horretarako berariaz prestatutako jolasgunea eta azpiegiturak izango ditu Faktorian.

BOR-
BOR-
FEMINISMOA
FAK-
TO-
RIA

Feminismoa BOR-BOR

Euskararekin batera, feminismoa da Faktoriaren ikur nagusietako bat. Eskualdeko mugimendu feminista saretu eta indartzeko ahaleginean aritu da azken urteotan, hainbat jardunaldi, topaketa eta proiektu garatuta. Faktoriak ateak irekitzearekin batera, feminismoak tresna berri bat izango du eskualdean emakumeen* ahalduntzea eta boteretzeari indartzeko.




Komunikabidea AIALALDEA

2010ko apirilaren 17an jaio zen Aiaraldea Komunikabidea. Aiaraldea.eus ataria sortzea izan zen lehen pausoa, bainabeste hainbat urrats sendoeman dira azken urteetan, Aiaraldea Hemen hamabostekariaren sorrera tartean. Euskara hutsezko hedabide batek izan ahalko lituzkeen mugak aise gainditu ditu Aiaraldea Hedabideak, eskualdeko erreferentziatzko hedabidea bihurtzeraino.

Egitasmo osoa finantzatzeko, hainbat motatako zerbitzuak eskaintzen ditu Aiaraldea Ekintzen Faktoriak.

Horretarako sortu zuen 'Komunika' marka, komunikaziori lotutako zerbitzuak eskaintzeko. Zentzu horretan, ikus-entzunezkoen ekoizpena, diseinua, itzulpengintza eta interpretazioa, marketina eta erakundeen komunikazioa dira zerbitzu lan-lerro nagusiak.



Ekonomia sozial eraldatzailea

Aiaraldeko I. Azoka Soziala izan zen Faktoriaren pabilioian antolatu zen lehen ekintza. Sistema kapitalistaren aurrean ekonomia pertsonen zerbitzura jartzen duten alternatibak egon badaudela erakustea izan zen ekimen horren xedea, eta horretan sakonduko Faktorian aurrerantzean ere. Telekomunikazio libreen alde lan egiten duen Izarkom irabazi asmorik gabeko kooperatibako bazkidea da Faktoria, bai eta energiaren burujabetza sustatzen duen Goienerrrena, finantza etikoak ahalbidetzen dituen Koop57 aurrezki kooperatibarena eta ekonomia sozial eraldatzailea sustatzea xede duen Olatukoop sarekoa. Proiektua hauek guztiak Aiaraldean hedatu eta indartzeko helburua du Faktoriak, bai eta esparru hauetan proiektu propioak garatzeko ere.

Elikadura burujabetza EKONOMATUA

“Jaten duguna gara”. Lema horretatik tiraka ekin zion bideari Elikadura Burujabetzaren ildoak. 2019 urtean eskualdeko hainbat otordu herriko tokikoak eta ekologikoak ziren lehengaiekin kudeatu ostean, Ekonomatua ireki zuen iaz, Basalarrina euskal topaguneak Laudion lagatako egoitzan. Tokiko produktu ekologikoak herritarren eskura jartzea da proiektuaren xedea, eskualdeko ekoizleekin elkarlanean arituz.

Orain, Faktoriako sarreran kokatuko da Ekonomatua, eta bertatik jarraituko du denda moduan funtzionatzen. Baina ez da saltoki hutsa izatera mugatuko: eskola jantokietan, catering eskaintzan, etxeko banaketan, nekazari belaunaldi berrien sustapenean... beste hainbat alorretan ere eragin nahi du ildo honek, elikadura burujabetza sustatzen jarraitzeko helburuarekin.

PROGRAMAZIO SOZIALA

FAKTORIA

#BizitzekoFaktoria #AmestekoFaktoria #ElikatzekoFaktoria #KulturarakoFaktoria
#FeminismorakoFaktoria #KomunikaziorakoFaktoria #HezkuntzarakoFaktoria
#EntzutekoFaktoria #EuskararenFaktoria #DenaEraldatzekoFaktoria

KULTURA




Maiatzak 15, zapatua
12:30ean eta 18:00ean

**RUPER
ORDORIKA**
[Musika]



Maiatzak 16, domeka
18:00etan

KAI NAKAI
Emakumeentzako*
[Musika]



Maiatzak 21, barikua
18:30ean

**POESIA ZAURIEN
UKENDU.** Xabier
Leteren arrastoa.
[Literatura eta musika]



Maiatzak 22, zapatua
11:00etan eta 12:30ean

**PORROTX ETA
YOGURINHA
BOROVA**
[Haurrentzako ikuskizuna]



Maiatzak 22, zapatua
18:00etan

**HABI ETA
ETXEKALTE**
[Musika]



Maiatzak 23, domeka
12:30ean eta 18:00etan

**CHILL
MAFIA**
[Musika]



Maiatzak 28, barikua
18:30ean

MALEN ATXA
eta Egoitz Uriarte
[Musika]



Maiatzak 29, zapatua
18:00etan

**ESTI ETA MIKEL
MARKEZ**
[Musika]



Ekainak 5, zapatua
12:30ean

KONPOST
[Musika]



Ekainak 5, zapatua
18:00ean

ERABATERA
[Musika]



Ekainak 6, domeka
12:30ean eta 18:00etan

BULEGO
[Musika]



Ekainak 12, zapatua
12:30ean eta 18:00etan

**EÑAUT
ELORRIETA**
[Musika]



Ekainak 13, domeka
18:00etan

**ELKAR EZAGUTU
GENUEN EGUNA**
[Antzezlan eta literatura]



Ekainak 19, zapatua
18:00etan

IBIL BEDI
[Musika]



Ekainak 26, zapatua
18:00etan

**MARIA RIVERO
& TRIBU BANDA**
[Musika]

IKAS TAR- OAK

Maiatzak 24, astelehena
19:00etan

**GURE AMONEN
ELIKADURA,
FRUTA ETA
BARAZKIAK**
Josu LarratEko
[Mahai-ingurua]

Ekainak 11, barikua
18:00etan

BIBA ARDOAK
kooperatiba
aurkezpena eta
ardo dastaketa
[Dastaketa eta aurkezpena]

Ekainak 15, asteartea
18:00etan

**BARAZKI
BURGERRAK
SUKALDATZEKO
TAILERRA**
[Sukaldaritza tailerra]

Ekainak 18, barikua
18:00etan

**SALTUS
GARAGARDOAK**
aurkezpena eta
dastaketa
[Dastaketa eta aurkezpena]

N

Maiatza eta
ekaina

HEZKUNTZA JARDUERAK

**Maiatzaren 17tik
ekainaren 18ra**Astelehen, eguazten eta
barikuetan 10:00etatik
13:00etara eta
astelehenetan, 17:00etatik
20:00etara.**AUTONOMIAN
BIZI, JOLASEAN
HAZI**0-3 urte
bitarteko haur
eta gurasoentzat
[Jarduera jarraia]**Maiatzaren 18, martitzena**
17:30etatik 19:00etara**NATURAKO
ELEMETUEKIN
SORTU**
4-7 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktorian jolasean]**Eguaztenetan maiatzaren
19tik ekainaren 16ra**Bi talde: 17:00etatik
18:30etara eta
18:30etatik 20:00etara
**SORMEN
ATELIERRA**
6-10 urte bitarteko
haurrentzat
[Atelierra]**Maiatzak 20, eguena**17:30etatik 19:00etara
**BIZIRAUPEN
SUKALDARITZA
EKOLOGIKOA**
8-11 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktoria jolasean]**Maiatzak 25, martitzena**17:30etatik 19:00etara
**ZENTZUMENEN
IBILBIDEA**
8-11 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktoria jolasean]**Maiatzak 26, eguaztena**19:00etatik 20:30etara
**FAKTORIAKO
FAMILIA ESKOLA,
AURKEZPENA**
Gurasoentzat
[Jarduera jarraia]**Maiatzaren 27, eguena**17:30etatik 19:00etara
**ZENTZUMENEN
IBILBIDEA**
4-7 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktorian jolasean]**Maiatzak 30, domeka**10:30etatik 11:30etara: 2-5
urte bitarteko haurrentzat
12:00etatik 13:00etara:
6-9 urte bitarteko
haurrentzat
**ARTEAREKIN
JOLASEAN**
[Faktorian jolasean]**Ekainak 1, martitzena**17:30etatik 19:00etara
ARE OBRADOREA
4-7 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktoria jolasean]**Ekainak 3, eguena**17:30etatik 19:00etara
**ZIENTZIAREKIN
ESPERIMENTATZEN**
8-11 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktoria jolasean]**Ekainak 4, barikua**18:00etatik 19:30etara
**IHES-GELA
(SCAPE-ROOM)**
12-15 urte bitarteko
nerabeentzat
[Nerabeen faktoria]**Ekainak 8, martitzena**17:30etatik 19:00etara
**TXIKI MUNDUAK
SORTZEN**
8-11 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktorian jolasean]**Ekainak 10, eguena**17:30etatik 19:00etara
MUSIKA KUTXA
4-7 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktorian jolasean]**Ekainak 15, martitzena**17:30etatik 19:00etara
**ARGIEN
ESPAZIOA**
[Faktorian jolasean]**Ekainak 17, eguena**17:30etatik 19:00etara
**NATURAZ
GOZATZEN**
8-11 urte bitarteko
haurrentzat
[Faktoria jolasean]**Ekainak 23, eguaztena**19:00etatik 20:30etara
**FAKTORIAKO
FAMILIA ESKOLA**
Haurren
sexualitatea,
familiako
helduentzat
[Faktoria jolasean]**Egin
zaitez
bazkide**BAZKIDEEK SARRERAK
ERRESERBATZEKO
LEHENTASUNA
IZANGO DUTE ETA
%15EKO DESKONTUA
FAKTORIAKO ZERBITZU
GUZTIETAN!

BERBALDIAK

Maiatzak 20, eguena18:00etan
**BERBALAGUNAK:
PIKATZALDIA**
Bernalagunak ekimenak
antolatua [Topaketa]19:30ean
**KULTURA PANDEMIA
EGOERAN**
[Mahai-ingurua]**Maiatzak 27, eguena**19:30ean
**UMOREA, IKUSPEGI
FEMINISTATIK.**
Ane Labaka Mayoz
[Hitzaldia]**Ekainak 3, eguena**19:30ean
**ERREFUXIATUEKIKO ELKARTA-
SUNAZ HAUSNARTZEN**
[Hitzaldia]**Ekainak 10, eguena**19:30ean
**BASOGINTZA EREDUA
AZTERGAI**
[Mahai-ingurua]**Ekainak 17, eguena**19:30ean
**NOLA ERAIKI KOMUNITATE
EUSKALDUN ETA FEMINISTA
BAT.** Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel.
[Hitzaldia]**Ekainak 25, barikua****OLATUKOOP:
SARETZE
EGUNA**
[Egun osoko topaketa]

INFO+

www.faktoria.eus



Egin zaitez bazkide

Zergatik egin bazkide?

Aiaraldean euskararen komunitate eraldatzailea ahaldundu, hazi eta garatu dadin. Bazkide izateagatik, Aiaraidea Ekintzen Faktoriako proiektu guztietan onura material ugari izango dituzu.

Aiaraldea Kooperatiba Elkartea, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko Kooperatiba da, ia 450 bazkide erabiltzailek eta langileek kudeatzen duten eskualdeko entitate soziala. Bazkideak dira Kooperatibaren eta honek kudeatzen dituen proiektuen gaineko erabakiak hartzen dituztenak, bazkide bat, boto bat printzipioa jarraituta.

Proiektua ere, bazkide hauen ekarpen ekonomikoari esker finantzatzen da, oinarri sozial horrek ematen baitio aurrera egiteko arnasa. Baina Kooperatibako bazkide izateak,

betebeharrez gainera, onura sozial eta material asko ere ematen dizkigu; euskaraz eta balio eraldatzaileen arabera bizitzeko tresnak eta onurak.

Erroka handiak ditugu esku-artean, marraztu ditugun ametsen tamainakoak, eta bide hori egiten jarraitzeko ZU ere behar zaitugu, ZURE BAZKIDETZA BEHAR DUGU proiektu guzti hauek herritarrenak eta herritarrentzat izan daitezen, euskararen komunitatea Aiaraaldea ahaldundu, hazi eta garatu dadin.

Bazkide izatearen onurak

Faktoriako espazioak erreserbatzeko lehentasuna eta txoko bezala erabiltzeko aukera! Kultur jardueretan sarrerak erreserbatzeko lehentasuna izango duzu!

%10-15EKO DESKONTUA!

-EKONOMATUKO EROSKETETAN. -ORDAINDUZKO FORMAZIO EKIMENETAN.
-TABERNA ETA SUKALDE ESKAINTZAN. -HEZKUNTZA ETA AISIALDI ESKAINTZETAN:
-ORDAINDUZKO KULTUR EKITALDIETAN. LUDOTEKA ZERBITZUAK, UDALEKUAK...

Ekonomatuko erosketen etxerako banaketa doan izango duzu!
Komunikabidearen argitalpenak etxean jasoko dituzu!
Kooperatibako jabea izango zara; bazkide bat, boto bat!
Eta askoz gehiago!

Bazkide motak

OHIKO BAZKIDEA

Zutaz gainera, beste heldu bat eta bi adin txikiko sartu ahal izango dituzu bazkide kartillan, denek bazkide-onurez gozatu ahal izango duzue.

11€
/HILERO

* 132 euro urtean

*ERRENTA AITORPENEAN
%20ko KENKARIA

*105,60 euroan
geratzen da urteko
kuota

EZ-OHIKO BAZKIDEA

Zutaz gainera, adin txikiko bat sartu ahal izango duzu bazkide kartillan, eta bazkide-onurez gozatu ahal izango du berak ere.

66€
/URTEAN

* 105,6 euro urtean

*ERRENTA AITORPENEAN
%20ko KENKARIA:

*52,80 euroan
geratzen da urteko kuota

ZALANTZAK DITUZU?

JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN ETA HARTUKO DUGU KAFE BAT:

Posta elektroniko bidez: bazkideak@aiaraaldea.eus

Telefono bidez: 94 656 85 54

Faktoriara etorrita: Errotari kalea 4-8 pabilioia LAUDIO - Araba-

